

XXI. MENDEKO EUSKALDUNAK

SARRERA
EUSKALDUNA IZATEA DA
EUSKALDUNEK IZAN NAHI
DUTENA (DUGUNA)

1. Aurrera egiteko, pertsonok hurbileko komunitateetan oinarritu behar dugu, **eta identitateak adierazten digu gizarte-mundura nola moldatu**, elkar zaintzeko eta laguntzeko arrazoi bat ematen digu, kidetza-zentzu bat.
2. Gure elkargoari dagokionez, euskaldun izatea zer den galderari **erantzun desberdinak eman zaizkio historian zehar**. Horrela, arraza, hizkuntza, kultura, historia edo adierazpen politikoan oinarritutako erantzunek formulatu ziren garai ezberdinetako giroan aurkitu zuten oinarria.
3. Komunitateak gehiago definitzen dira bizi dituzten aldaketengatik inolako jarraitutasunagatik baino, baina egia da, halaber, ez dituztela inoiz erabat bazterten antzinako identitateak edo horrenbeste goersten den tradizioa. Gaitasun narratibo eta artistiko edo adierazkorrei esker irauten dute, eta denboran zehar, **erantzun desberdinak garai bakoitzera egokitutako identitatearen pertzepzio soziala bilbatuz eta osatuz doaz**.
4. Garrantzitsuena da identitateak ezaugarri bereizgarriak ematen dizkiola gizakiari, eta ezaugarri horiek, euskal kasuan, **ez daude ustezko antzinatean, erresilientzian baizik, bere hizkuntzari, kulturari eta erakunde politikoei eusteko garaian adierazitako borondatean, hain zuzen**.
5. Euskaltasunaren etengabeko definizio horretan, beren euskaltasuna etengabe formulatzen ari direla, **ikur bereizgarria da autogobernurako borondatea eta botere politiko gehiago eskatzea**.
6. **Beren burua euskal herritartzat jotzen dutenen taldetik kanpo daudenek uste dutena ere garrantzitsua da**; izan ere, nortasun horren zilegitasunaren zati bat eurengan datza, gu nor garen adostea nahiko zail gertatzen delako. Gauza bera ikus daiteke gure bando-historia sekularrari begiratu azkar bat egiten badiogu: oinaztarrak eta ganboatarrak, agaramontarrak eta beamontarrak, karlistak eta liberalak, demokratikak eta frankistak, abertzaleak eta estatalistak.
7. Beraz, inguruabar objektiboak, hala nola jatorri komuna edo hizkuntza, kontuan hartzeak **ezinbestean bete beharreko beste inguruabar subjektibo bati lotuta egon beharko du gizarte ireki baten esparruan: euskaldunen euren borondatea**. Hori dela eta, XXI. mendean euskal herritar izateari eman beharreko erantzuna agindu demokratiko batekin erantzun beharko da: **“Euskal herritarrek nahi (nahi) duguna da euskalduna izatea”**. Euskaltasunaren auto-baieztapena eta auto-identifikazioa euskaldunen erabaki askearen emaitza izango da, gai komunitario eta politikoak direnean.
8. Herrialde honetan bizi izan diren gizon-emakumeek **behin eta berriz berrasmatu behar izan dute beren burua, etenik gabe gertatu diren eszenatoki-aldaketei aurre egiteko**. Aro historiko bakoitzean, beren garaiko seme-alabak izan dira, beren lurraldean sustrai sendoak izan dituztenak, baina mundura irekiak, unean uneko teknologiak

bereganatuz eta garaiko joera artistikoetan parte hartuz. Bidaia gorabeheratsu honetan, guri egokitu zaigu euskal herriak XX. mendean zehar aurre egin behar izan zien erronken lekuko hurbilak izatea, baita erronka horiei heltzeko moduaren lekuko izatea ere, herri sentimendu indartsu batek, autoantolatze gaitasun nabarmen batek, berezko kultura eta hizkuntza batek, euskarak, eta bere patuaren jabe izateko nahiak bultzatuta.

9. Une honetan, ondorengo galdera planteatzen zaigu: XXI. mendeko euskaldunok non gaude gaur egun eta zer izan nahi dugu?

Hasteko, **2020ko euskal herritarrok gizarte digitalaren parte gara, mundu globalizatu eta multikultural batean murgilduta gaude, non migrazio-mugimendu etengabeak gertatzen diren. Klima-aldaketak eta biodibertsitatearen galerak kezkatzen gaitu. Jakin badakigu botere geopolitiko berriak sortu direla eta gune tekniko-ekonomikoak lekuz aldatu direla. Kezkaz**

ikusten ditugu demokratizatorik gabeko joera globalak eta ongizate-estatuaren higadura progresiboa. Bereziki, COVID-19ak sortutako osasun-krisian murgilduta gaude. Pandemia hori planeta osoan zabaldu da, eta haren ondorio ekonomiko eta sozial suntsitzaileak gaur egun aurreikusten eta kuantifikatzen zailak dira.

10. Bestela esanda, munduko gainerako biztanleekin batera, **zibilizazio global bakar eta gatatzeko bateko kide gara.** Mundua gero eta konplexuagoa da, eta lankidetzaren eta elkarri laguntzea ezinbesteko gertatzen dira; hala ere, norbanakoaren eta esparru pertsonalizatuaren garrantzia handitzen ari da. Mundu honetan identitateak, pertsonalak zein kolektiboak, gero eta pluralagoak, sinkretikoagoak eta nomadagoak dira (1), *identitatea ez baita ez estatikoa ezta egonkorra ere. Denboran zehar etengabe eraikitzen eta berreraikitzen den zerbait da, eta, beraz, euskal kasuan ere (identitatea) etengabe aldatzen ari da* (2).

KOMUNITATEKO KIDE SENTITZEA

1. **Osotasun baten parte sentitzea**, dela talde batena, dela geografia batena, giza garapenerako oinarritzeko eta funtsezko hiru premia psikologikotako bat da, autonomiarekin (egin ahal izatea) eta gaitasunarekin batera (egiten jakitea) (3).
2. Pertsonok, **egiten dugunari eta gure existentziari esanahi eta helburu ematen dion kolektibo batean integratuta**, onartuta, partaide sentitu behar dugu. Gure beharrak eta xedeak asetzen dituen kolektibo bat, jarrerak eta balioak balioztatzeke erreferentziak ezartzen dituen. Kolektibo horren ezagarrrietan islatuta sentitzen gara, gure auto-estimua indartzen du eta, gainera, bizitzaren etengabeko jariatzean jarraitutasun-zentzua ematen digu.
3. Nortasuna, identitate sentimendua, beraz, ondoren aipatuko ditugun **sei beharrezan** inguruan sortzen eta egituratzen da:
 1. Nor garen (ezaugarri bereizgarriak-integratzaileak)
 2. Beharren asebetetzea
 3. Kide izatea sentitzea (*onartuak garelako sentitzea, integratuak, parte hartzaileak*)
 4. Auto-estimua
 5. Jarraitutasun zentzua (*..bizitzaren bilakaeran*)
 6. Esanahia (*egiten dugunari zentzua eta xedea ematea*)
4. Laburbilduz, **euskal identitateaz hitz egiteak** esan nahi du kontzeptu zabalago eta inklusiboago batetik hitz egitea, pertsona baten genealogiari edo bere jatorriari erreferentzia egitea baino, nahiz eta bi erreferentziak ere erabat baliozkoak izan. Aitzitik, euskal nortasunaz hitz egitea, euskal espazioko pertsonen arteko eguneroko elkarrekin-tzaren bidez sortzen eta atzeraelikatzen den bizitza izateko eta ulertzeko moduz hitz egitea da. Familian, lanean, eskolan, plazetan, tabernetan, gimnasioan, estadioetan edo kontzertu aretoetan pertsonen artean gertatzen den harreman hori, adibide batzuk aipatzearen. Era berean, komunitate baten partaide sentitzeaz hitz egitea da, zeinarekin sinboloak, tradizioak, oroimen historikoak, kultura, erakundeak eta hizkuntza bat, euskara, partekatzen den. Horrek denak ematen dio komunitateari bere izaera berezia.